

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Jarduera Ekonomikoen - estatuko edo probintziako kuota dutenak- gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2025eko errolda jendaurrean jartzea

905/1991 Foru Dekretuan, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 26koa, non Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren arauzko garapena onartu zen, 2. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraituz, jakitara ematen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen eta, zehazki, estatuko edo probintziako kuota duten jardueren 2025eko errolda jendaurrean jarriko dela Udal Zerga eta Katastro zerbitzuan. Matrikula aztertu eta erreklamazioak egin ahal izateko, hamabost egun baliodun izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 12an

Udal Zergak eta Katastro Zerbitzuaren burua
ESTÍBALIZ PILAR SÁNCHEZ MORENO